*Euskararen Gaitasun Agiria*

*IDAZLANA 03-03-29*

1. *Argi idatzi behar da, eta albait garbien.*
2. *Idazlanak <u>gutxienez 300 hitz</u> izan behar ditu.*
3. *Idazlanaren kalifikaziorako ondoko hiru alderdi hauek izango dira ardatz:*
   a) *gaiaren eraketa eta garapena;*
   b) *hizkuntza-aberastasuna eta zehaztasuna;*
   c) *zuzentasuna.*
4. *Orrialde bat izango duzu gidoia egiteko, apunteak biltzek ... Ez da zuzenduko.*
5. *Hurrengo orrialdeetan bi gai proposatzen zaizkizu, bat aukeratu eta garatzeko. Gaiak garatzeko, laguntza moduan, dossier bana eta puntu batzuk dituzu: galderak, gogoetak, iritziak... Ez dira nahitaez kontuan hartu beharrekoak; zuk zeuk aukeratutako bestelako ikuspuntu edo alderdi batzuetan oinarriturik ere egin dezakezu.*
6. *Aukeratutako gaia garatzeko iritzi askatasuna duzu. Beti ere, begirunez joka ezazu: saihestu jarrera sexistak, homofoboak, arrazistak...*

# GAIA GIZONEZKOAK ETXEKO LANETAN

Etxeko zereginak emakumeen ardura, gizonezko askoren ustez



MUNDOGAR, 2001eko ekaina

Gizonezko gehienek ez dute behin ere lixiba egin.



MUNDOGAR, 2001eko ekaina

Etxekoandre baten agenda:

- Etxearen garbiketa
- Umeak prestatu/zaindu
- Gurasoak zaindu
- Otorduetarako zer prestatu erabaki
- Erosketak egin
- Lixibak egin
- Arropak lisatu
- Otorduak prestatu
- Sukaldekoak egin
- ...



MUNDOGAR, 2001eko ekaina

Super-emakume baten agenda: etxekoandre lanak + lan profesionala

Belaunaldi gazteek eta hiritarrek gehiago parte hartzen dute etxeko lanetan

**Lan banaketa**

Emakumeek etxekoa eurek noski, eta etxetik kanpo gero eta gehiago.

Gizonezkoak: etxetik kanpo bai, baina etxekoa... Esatea ere!



MUNDOGAR, 2001eko ekaina



MUNDOGAR, 2001eko ekaina

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Etxeko lanetan familiako kideen parte-hartzea.
- Etxeko lanak eta sexuen araberako banaketa.
- Belaunaldien arteko aldeak. Belaunaldi gazteen jokabidea.
- Etxekoandreen lana: ordaindu gabekoa eta eskerrik gabekoa.
- Etxeko lanetan denen parte-hartzea: gizarte aurreratuaren seinale?

**GAIA** ZAHARTZAROA

Gastua gizarte-babesean




Iturria: EUSTAT

**Zahartzaroa beste herrialde batera joatea bezala da, apurka-apurka egokitu behar**



Iturria: EMAKUNDE, 2002KO MARTXOA

⇨ Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan zaharren %16,5 bakarrik bizi dira etxean

*Zahartzaroan, besteen menpe*



Iturria: EMAKUNDE, 2002KO MARTXOA



Iturria: EMAKUNDE, 2002KO MARTXOA

Marik 67 urte ditu eta bere biloben kargua du: «Ezin dut ume bat sufritzen ikusi»



Iturria: EMAKUNDE, 2002KO MARTXOA

*Zahartzaro ona izateko gomendioak: etxean ez gelditzea, kalera ateratzea, lagunekin eta senideekin hitz egitea, informatua egotea, kirola egitea, elikadura zaintzea eta norbera izatea.*

Orri honetan dituzun testuak irakurri ondoren, idatz ezazu gaiari buruz (300 hitz, gutxienez). Ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:

- Zer da zahartzea? Nola aldatzen da bizimodua erretiroa hartu ondoren?
- Nola bizi dira zure inguruko zaharrak? Nolako harremana dute ingurukoekin?
- Zaharrek non bizi behar dute: etxean, seme-alabekin, egoitzetan...?
- Zahartzean hainbat gaitasun galtzen da: oroimena, zentzumenak...
- Zahartzaroa eta eritasunak; zahartzaroa eta heriotza.